Azpiegiturak	0,8	0,7	1,4	0,5	1,3	0,3	0,7
Beste batzuk	0,4	0,1	0,3	0,3	0,4	0,0	0,3
ED/EDE	51,6	64,8	46,1	46,7	61,4	77,2	58,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

156. taula- Bizikletan ibiltzearen onena, sexuaren eta adinaren arabera (%)

Gipuzkoako eskualde guztietan gehien errepikatu duten erantzuna izan da izaera osungarria duela, hots, bizikletan mugitzeko garaian ariketa fisikoa ere egiten dela.

	Bidasoa Beherea	Debabarrena	Debagoiena	Donostialdea	Goierri	Tolosaldea	Urola Kosta	Guztira
Autonomia/askatasuna	4,2	1,4	4,7	5,4	4,2	4,5	6,2	4,8
Ariketa egitea/ Izaera osungarria	9,8	9,8	12,6	12,7	12,1	14,5	13,8	12,3
Ekologia / Ingurumeneko jasangarritasuna	3,6	3,3	7,1	5,4	6,8	6,5	7,9	5,7
Funtzionalitatea (azkartasuna, malgutasuna, aparkatzeko erraztasuna)	5,2	3,7	4,7	6,6	3,8	5,5	12,0	6,4
Paisaia / Natura	0,3	2,3	1,2	1,1	1,5	0,5	0,9	1,1
Ongizate emozionala (deskonexioa, lasaitasuna, erlaxazioa, gozamena...)	4,2	5,1	7,1	5,9	2,6	4,0	4,4	5,2
Erosotasuna	1,3	1,4	1,2	2,4	1,5	1,5	3,5	2,2
Izaera ekonomikoa / Aurrezkia	1,0	0,9	2,0	2,1	0,8	4,0	2,9	2,0
Familiarekin / Lagunekin egotea	1,3	0,9	1,2	0,8	1,1	1,5	1,2	1,0
Azpiegiturak	0,3	0,0	1,2	0,8	0,0	1,0	1,5	0,7
Beste batzuk	0,3	0,0	0,4	0,2	0,4	0,0	0,6	0,3
ED/EDE	68,3	71,0	56,5	56,6	65,3	56,5	45,2	58,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

157. taula- Bizikletan ibiltzearen onena, eskualdearen arabera (%)

Erabiltzailearen araberrako azterketari dagokionez, ez dugu erantzunik jaso bizikleta gutxien erabiltzen duten kolektiboko pertsonen partetik.

“Eguneroko txirrindulariek” gehien errepikatu dituzten erantzunak izan dira ariketa fisikoa egitea, funtzionalitatea (azkartasuna, malgutasuna, aparkatzeko erraztasuna), ekologia, autonomia/askatasuna eta ongizate emozionala.

Bestalde, "kirol/aisialdiko txirrindulariek" ariketa fisikoa aipatu dute lehenik, eta, ondoren, ongizate emozionala, ekologia, autonomia eta funtzionalitatea.

	Eguneroko txirrindulariak % 15,3	Kirol/aisialdiko txirrindulariak % 7,9	Noizbehinkako txirrindulariak % 14,6	Bizikleta inoiz ez du erabiltzen % 55,5%	Ez daki bizikletan ibiltzen % 6,7%	Guztira
Autonomia/askatasuna	12,5	11,4	5,8	0,0	0,0	4,8
Ariketa egitea/ Izaera osasungarria	25,9	36,6	18,5	0,0	0,0	12,3
Ekologia / Ingurumeneko jasangarritasuna	13,9	14,1	7,9	0,0	0,0	5,7
Funtzionalitatea (azkartasuna, malgutasuna, aparkatzeko erraztasuna)	20,1	7,5	7,7	0,0	0,0	6,4
Paisaia / Natura	0,9	5,6	1,9	0,0	0,0	1,1
Ongizate emozionala (deskonexioa, lasaitasuna, erlaxazioa, gozamina...)	8,2	15,7	11,5	0,0	0,0	5,2
Erosotasuna	6,7	2,6	2,7	0,0	0,0	2,2
Izaera ekonomikoa / Aurrezkia	5,8	2,9	2,7	0,0	0,0	2,0
Familiarekin / Lagunekin egotea	3,2	1,6	1,0	0,0	0,0	1,0
Azpiegiturak	1,7	2,0	1,0	0,0	0,0	0,7
Beste batzuk	0,8	0,0	0,4	0,0	0,0	0,3
ED/EDE	0,3	0,0	38,8	100,0	100,0	58,3
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

158. taula- Bizikletan ibiltzearen onena, erabiltzaile motaren arabera (%)

8.2 Bizikletan ibiltzearen okerrena

Gipuzkoako herritarrek bizikletan ibiltzearen okerrena zein den galdetuta gehienbat eguraldi txarri aipatu dute, eta, ondoren, bide publikoetako beste ibilgailuekin dagoen harremana (motordun ibilgailuak, motor gabeak eta oinezkoak). Hirugarrenik, azpiegiturak aipatu dituzte eta, laugarrenik, garraio bide horrek dituen arriskuak.

Genero-aldagaiari dagokionez, gizonak emakumeek baino gehiago erantzun dute. Bizikletan ibiltzearen okerrena zer den azaltzeko garaian, faktore hauek aipatu dituzte gizonak gehien: eguraldi txarra, bide publikoko beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana, arriskua eta azpiegiturak. Emakumeek ere faktore horiek aipatu dituzte, baina hein txikiagoan.

Adinaren araberrako azterketari dagokionez, bi adin-talderik gazteenek bat egiten dute bizikletan ibiltzearen okerrena eguraldi txarra eta bide publikoko beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana dela. Bi adin-talderik helduenek bide publikoko beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana aipatu dute lehenik.

GIPUZKOAN BIZIKLETA GARRAIOBIDE GISA ERABILTZEARI BURUZKO IKERKETA SOZIOLOGIKOA 2023

	Sexua		Adina				Guztira
	Gizona	Emakumea	15-24 urte	25-49 urte	50-64 urte	65 urte eta gehiago	
Lapurreta	1,0	0,4	0,9	1,1	0,6	0,0	0,6
Bizikleta tradizionalak	1,6	0,5	3,5	0,9	0,3	0,8	1,1
Arriskua	5,5	3,5	2,8	5,7	4,9	2,8	4,4
Bizikleta publikoak eta Dbizi	0,4	0,4	0,9	0,4	0,4	0,0	0,4
Segurtasuna	2,1	1,5	2,8	1,7	0,9	2,1	1,7
Azpiegiturak	5,0	5,0	5,7	8,4	2,1	2,4	4,9
Beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana (ibilgailu motordunak, motordunak ez direnak eta oinezkoak)	8,9	6,5	8,8	9,4	8,7	3,2	7,5
Eguraldi txarra	10,1	8,1	17,3	12,8	6,6	2,1	8,8
Orografia	0,4	0,5	0,0	0,3	0,4	0,7	0,4
Batere ez	2,9	1,1	2,2	1,3	2,7	1,7	1,9
Beste batzuk	1,7	0,9	2,5	1,8	0,9	0,4	1,3
ED/EDE	60,5	76,6	52,5	56,1	71,4	83,8	67,0
GUZTIRA	100,0	105,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

159. taula- Bizikletan ibiltzearen okerrena, sexuaren eta adinaren arabera (%)

Eskualdearen azterketari dagokionez, Gipuzkoako zazpi eskualdetik bostek aipatu dute eguraldi txarra faktore nagusi gisa. Bidasoa Behereak bide publikoko beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana aipatu du eta Debarrenak arriskua nabarmendu du.

	Bidasoa Beherea	Debarrena	Debagoiena	Donostialdea	Goierri	Tolosaldea	Urola Kosta	Guztira
Lapurreta	0,4	0,0	0,9	0,6	0,8	0,6	1,1	0,6
Bizikleta tradizionalak	0,7	0,0	0,9	1,1	0,8	2,3	1,4	1,1
Arriskua	4,0	5,6	4,4	3,8	3,3	6,2	6,2	4,4
Bizikleta publikoak eta Dbizi	0,4	0,5	0,4	0,6	0,0	0,0	0,0	0,4
Segurtasuna	2,2	2,5	1,3	1,7	2,1	1,1	1,4	1,7
Azpiegiturak	4,0	3,6	4,0	5,2	3,8	5,6	6,2	4,9
Beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana (ibilgailu motordunak, motordunak ez direnak eta oinezkoak)	6,5	5,6	8,8	7,8	5,4	5,6	10,1	7,5
Eguraldi txarra	3,2	3,0	10,6	9,9	8,4	7,9	13,4	8,8
Orografia	0,7	0,5	0,9	0,3	0,4	0,0	0,4	0,4
Batere ez	1,8	0,0	0,9	2,1	1,3	1,7	3,6	1,9
Beste batzuk	1,1	1,0	2,2	1,2	0,4	3,4	0,4	1,3
ED/EDE	75,2	77,7	64,6	65,6	73,2	65,5	55,8	67,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

160. taula- Bizikletan ibiltzearen okerrena, eskualdearen arabera (%)

Erabiltzaile motaren arabera, "eguneroko txirrindularien" zein "kirol/aisialdiko txirrindularien" kolektiboek aipatu dute gehien eguraldi txarra eta bide publikoan dauden beste erabiltzaile batzuekiko harremana.

	Eguneroko txirrindulariak % 15,3	Kirol/aisialdiko txirrindulariak % 7,9	Noizbehinkako txirrindulariak % 14,6	Bizikleta inoiz ez du erabiltzen % 55,5%	Ez daki bizikletan ibiltzen % 6,7%	Guztira
Lapurreta	2,1	2,2	0,8	0,0	0,0	0,6
Bizikleta tradizionalak	2,5	3,5	2,0	0,0	0,0	1,1
Arriskua	10,7	19,0	6,3	0,0	0,0	4,4
Bizikleta publikoak eta Dbizi	1,8	0,4	0,3	0,0	0,0	0,4
Segurtasuna	4,8	7,1	2,3	0,0	0,0	1,7
Azpiegiturak	15,5	10,6	9,0	0,0	0,0	4,9
Beste erabiltzaile batzuekin dagoen harremana (ibilgailu motordunak, motordunak ez direnak eta oinezkoak)	22,6	23,5	11,3	0,0	0,0	7,5
Eguraldi txarra	29,2	19,0	15,3	0,0	0,0	8,8
Orografia	0,2	3,1	1,0	0,0	0,0	0,4
Batere ez	6,4	4,4	3,0	0,0	0,0	1,9
Beste batzuk	3,2	4,4	2,5	0,0	0,0	1,3
ED/EDE	1,1	2,7	46,4	100,0	100,0	67,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

161. taula- Bizikletan ibiltzearen okerrera, erabiltzaile motaren arabera (%)

9 Sektorekako analisia: Eskualdea eta sexua

Kapitulu honetan, inkestatik lortutako datu kuantitatiboak irakurriko ditugu, lurralde- eta sexu-bektorean oinarrituta.

9.1 Eskualde analisia

Garraibideen eskuragarritasunari dagokionez, Urola Kostan eta Debagoienan dituzte erabilera pertsonalerako bizikleta gehien (% 60,2 eta % 53,4, hurrenez hurren), eta Debabarrenan eta Bidasoa Beherean dute erabilgarritasun txikiena (% 36,4 eta % 38, hurrenez hurren).

2014arekin alderatuta, bizikleten prestasunak behera egin du eskualde guztietan (-6,4 puntu Gipuzkoa osoan), eta nabarmentzekoa da beherakada handieneko bi eskualdeak Bidasoa Beherea (-15,3 puntu) eta Debabarrena (-11,8 puntu) direla. Beherakada nabarmena izan duen hirugarren eskualdea Tolosaldea da (-15 puntu); zeinek 2014an Urola Kostako prestasun-indizeak gainditzen zituen (% 63,9 eta % 62,6, hurrenez hurren).

Arriskugarritasun pertzepzioa Urola Kostan dauka (% 27,4) arrisku pertzepzio gutxien duen eskualdea (joan-etorri horiek gutxi edo batere segurutzat jotzen dituzte); aldiz, Debabarrenako herritarrak (% 53,9) eta Bidasoa Beherekoak (% 51,2) dira segurtasunik eza handiena hautematen dutenak. Nabarmentzekoa da segurtasun ezaren pertzepzioak behera egin duela 2014 eta 2023 artean, % 59,7tik % 39,5era igaro baita joan-etorri horiek gutxi edo batere segurutzat jotzen dituztenen artean.

Bizikletaren **erabilera-maila** aztertuz gero (hilean behin, gutxienez, bizikletaren erabilera gisa neurtuta), Urola Kostan dago bizikleta gehien erabiltzen den eskualdea (% 41,0), eta gutxien erabiltzen duten eskualdeak, berriz, Debabarrena (% 19,9) eta Goierri (% 25,1) dira. 2014arekin alderatuta, Gipuzkoan seozter jaitzi da bizikletaren erabilera-maila (6 puntu gutxiago), baina Bidasoa Beherean bereziki nabarmena da, 16,3 puntuko beherakada izan baitu (% 38,8tik % 22,5era).

Etxe bakoitzeko bizikleten batez besteko handiena duen eskualdea Urola Kosta da (2,76); berriz ere, Debarrena (1,67) eta Bidasoa Beherea (1,7) dira etxe bakoitzeko bizikleten batez besteko txikiena duten eskualdeak. 2014tik, batez bestekoa 1,4tik 2,02ra igo da, eta igoera hori eskualde guztietan gertatu da.

Bizikleta elektrikoen jabetza, bestalde, antzekoa da eskualde guztietan, batez beste 0,14 bizikleta elektriko baititu etxe bakoitzeko.

Etxean dauden bizikletak **biltegitzeko lekua** oso antzekoa da eskualde guztietan, eta eraikinaren barruko eremu pribatuak nabarmentzen dira (garajeak, trastelekuak...), kasuen % 75,3, batez beste. Hori bai, nabarmentzekoa da Urola Kostaren kasuan ehuneko txiki batek (% 3,1) kalean uzten duela adierazten duela, eta gainerako eskualdeetan, berriz, ia ez dagoela kasuistika hori. 2014. urtearekin alderatuta, joera eraikinaren eremu pribatuetatik etxe barrurakoa izan da.

Bizikleten lapurretari dagokionez, Debarrena da bizikleta lapurtu izana salatu zuten pertsonen ehuneko handiena (% 85,4). Kontrako aldean, Bidasoa Beherea dugu, % 59,1 baino ez baitziren salatu.

Debagoiena eta Urola Kosta (% 97,5 eta % 94,3, hurrenez hurren) dira **bizikletan ibiltzen dakiten** pertsona gehien dituzten eskualdeak, eta Debarrena (% 87,9) eta Bidasoa Beherea (% 90,1) dira gutxien dakitenak. Aitzitik, bi eskualdeetan adierazten dute ikasteko interesik handiena (Debarrenan % 27,4k, eta Bidasoa Beherean % 15,6k; Gipuzkoa osoan, berriz, % 12,1ek).

Urola Kosta da **ohiko bizikleta-erabiltzaileen** proportzio handiena duena, Gipuzkoa osoan erregistratutako proportzioa aise gaindituz (% 33,3 eta % 23,2, hurrenez hurren). Bestalde, Debarrena eta Bidasoa Beherea eskualdeak dira eguneroko txirindularien proportzio txikiena dutenak (% 15,1), eta Goierriekin batera (% 17,5) Gipuzkoako batez bestekoaren azpitik dauden hiru eskualdeak dira.

Sortu diren bizikletaren erabileraren araberako pertsona-tipologiei erreparaturaz gero (eguneroko erabiltzaileak, kirol- eta jolas-erabiltzaileak, noizbehinkakoak, bizikleta inoiz ez duenak erabiltzen eta ibiltzen ez dakitenak), patroia bera lortzen da: Urola Kosta (% 26,1) da eguneroko txirindularien proportzio handiena duena, eta Debarrena gutxien duena (% 5,8).

Eskualde guztietan **joan-etorriak egiteko arrazoi nagusiak** aisialdia-paseatzeko eta kirola dira.

Bizikleta erabiltzeko oztopoei dagokienez, eguneroko txirindulariak ez direnen aldetik, erantzunak heterogeneoak dira eta eskualdearen araberako patroia argirik gabeak. Aldi berean, **bizikleta eguneroko erabiltzeko interesak** ez du aldaketa handirik eskualdeen artean, Debagoienan erakutsitako interes handiagoaren (% 17,1) eta Bidasoa Beherearen interes txikiagoaren (% 11,1) artean. Bizikleta erabiltzeko interesarekin lotuta, Gipuzkoako pertsonen % 4,8k interes handiarekin edo nahiko interesarekin planteatzen du **ikaskuntza ikastaro batera joatea**, Bidasoa Beherea izanik interes gehien agertzen duen eskualdea (% 5,9), eta Urola Kosta (% 4,2) eta Donostialdea (% 4,3) interes gutxien agertzen dutenak.

Bizikletaren erabileraren **irudi soziala** oso positiboa da eskualde guztietan, nahiz eta Urola Kosta (% 93,9) den ikuspegi positiboena duena eta Debarrena (% 82,3) gutxien duena. Egoera oso antzekoa zen 2014an.

Beste **garraibide batzuekiko bizikidetzan** dagoen gatazkak erakusten du Bidasoa Beherean (% 82,5) eta Debabarrenan (% 79,1) ikusten dela arazo handiena bizikleten eta ibilgailu motordunen artean (bizikidetzan oso eta/edo nahiko gatazkatsua), Gipuzkoako guztizkoaren batez bestekoaren aldean (% 74,1). 2014an, bi eskualde horiek ziren, halaber, gatazka gehien adierazten zutenak.

Bizikleten zerbitzu publikoa erabiltzeak interes handiagoa pizten du Debagoienan (% 31,3) eta Urola Kostan (% 29,4), eta interes gutxien, berriz, Tolosaldean (% 19,7). Analisia eguneroko txirridularien tipologiara mugatuz gero, berriz ere Debagoiena da interes handiena duen eskualdea (% 75,8), eta Debabarrena da interes txikiena duena (% 61,8).

Automobilarentzako espazioak kentzeak du onarpenik handiena Urola Kostan (% 50,0) eta Debagoienan (% 48,8), eta Bidasoa Beherea da neurri horren aldeko ehuneko txikiena duena (% 37,1).

Bizikleta erabiltzeko edo gehiago erabiltzeko garrantzi handiena ematen zaien faktoreak nahiko modu homogeneoan adierazten dira eskualde guztietan.

Donostialdean baloratzen dira ondoen **bizikleta sustatzeko politikak** (6,6 puntu), eta Debabarrenean (5,3 puntu) gutxien, Gipuzkoa osoan lortutako batez besteko nota baino puntu bat gutxiago. Horrekin lotuta, **bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko baliabide publikoen hazkundera** Debagoieneko pertsonen % 85,1ek eta Urola Kostako % 84,5ek babesten dute, eta Bidasoa Beherean sortzen da babes gutxien (% 74,7).

Bizikleta bidezko mugikortasuna bultzatzeko inbertitzea komenigarria izan daitekeen esparruen artean, bizikleta bidezko azpiegiturretan inbertitzeak du babesik handiena eskualde guztietan, aparkaleku seguruak atzetik dituela.

Azkenik, bizikleta erabiltzeari buruz **onena zer den** galdetu denean, eskualde guztietan gehien errepikatu den erantzunak izaera osasungarriarekin eta bizikletaren erabilerak ematen duen ariketa fisikoa egiteko aukerarekin izan du zerikusia. Aitzitik, **okerrenaz galdetzean**, erantzuna lurraldeka ez da hain homogeneoa izan; izan ere, bost eskualdek eguraldi txarra okerrenea dela dioten arren, Bidasoa Behereak bide publikoko beste erabiltzaile batzuekiko harremana aipatu du, eta Debabarrenak, berriz, arriskugarritasuna nabarmendu du.

Oro har, eskualdearen azterketak agerian uzten du Urola Kosta dela bizikleta bidezko mugikortasunak onarpen handiena duen eskualdea, eta Debabarrena eta Bidasoa Beherea, berriz, onarpen txikiena duen eskualdea.

9.2 Sexu analisia

Gizonek **garraibide** guztien (autoa, motorra eta bizikleta) **eskuragarritasun** handiagoa dute, MPI garraibideen kasuan izan ezik.

Segurtasun-faltaren pertzepzioa handiagoa da emakumeen artean garraibide guztietan, eta 2014an ere handiagoa zen.

Gizonek **erabiltzen dituzte gehien garraibide guztiak**, garraio publikoa izan ezik, emakumeek gehiago erabiltzen baitute (gizonen % 70,4 eta emakumeen % 74,5). Bizikletaren kasuan, erabilera-aldea 13,7 puntukoa da gizonen alde (% 37,7 eta % 24, hurrenez hurren). Alde hori handiagoa zen 2014an, ia 19 puntukoa (% 46,2 eta % 27, hurrenez hurren).

Bizikletan ibiltzen dakiten gizonen ehunekoa handiagoa da (% 96,4 eta % 90,3, hurrenez hurren), baina alde hori murriztu egin da 2014tik (% 96,8 eta % 78,9, hurrenez hurren), emakumeek gaitasun handiagoa dutelako arlo horretan. **Hiri-inguruneetan modu seguruan bizikletaz ibiltzeko gaitasunari** dagokionez, berriz ere gizonen ehunekoa handiagoa da (% 78,1 eta % 74,4, hurrenez hurren). Azkenik, horri dagokionez, emakumeek askoz ere interes handiagoa dute horretarako gaitasuna eskuratzeko (% 17,5 eta % 6,3, hurrenez hurren).

Bizikleta erabiltzeko maiztasun handiagoa dute gizonek emakumeek baino (gizonen % 29,3 ohiko txirrindularia da, eta emakumeen % 17,5).

Bizikletaren **ohiko erabiltzaileen tipologiari** erreparatuta (egunerokoak eta kiroletakoak), gizonak emakumeak baino gehiago dira (% 29,3 eta % 17,6, hurrenez hurren). Emakumeek gehiago erabiltzen dute bizikleta adinekoen eta adingabeen zaintzarekin lotutako joan-etorriak egiteko, eta gutxiago kirolerako.

Eguneroko txirrindulariak soilik kontuan hartuta, gizonen proportzioa emakumeena baino 12 puntu handiagoa da (% 56,1 eta % 43,9, hurrenez hurren).

Lehen bizikleta ohiko garraibide gisa erabiltzen zuten eta jada erabiltzen ez duten emakumeen proportzioa txikiagoa da (% 25,9 eta % 39,2, hurrenez hurren), eta joera horri eutsi zaio 2014tik (% 25,1 eta % 37, hurrenez hurren). Galdetegian bizikleta ez erabiltzeko proposatzen diren arrazoi guztiak garrantzitsuagotzat jotzen dituzte emakumeek gizonen baino, forma fisikoarekin eta osasun-arazoekin lotutakoa izan ezik, gizonek apur bat gehiago aipatzen baitute.

Emakumeek gizonen baino interes handiagoa dute **bizikleta egunero (garraibide gisa) erabiltzeko** (% 16,5 eta % 13,5, hurrenez hurren). Emakumeek garraio publikoa eta oinezko joan-etorriak gehiago erabiltzeari utziko liokete, eta gizonek, berriz, autoa eta motorra gehiago utziko lituzkete (bakoitzak gehien erabiltzen dituen moduen egungo banaketaren arabera).

Emakumeek interes handiagoa dute bizikleta erabiltzen ikasteko ikastaroetara joateko (% 7 eta % 2,5, hurrenez hurren).

Bizikletaren prestigio soziala oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean.

Moduen arteko bizikidetzari emakumeek balorazio txarragoa ematen diote, baina alde hori nabarmenagoa da tartean dauden komunikabideetako bat ez denean txirindulariak direnean baino.

Bizikleta publikoko zerbitzuak erabiltzeko interesa handiagoa da emakumeen artean (% 30,4 eta % 24,1, hurrenez hurren), eta bizikletak autokonpontzeko puntuekiko interesa antzekoa da bi sexuetan

Emakumeek gizonen baino okerrago baloratzen dute **garraio bide desberdinen arteko bizikidetzaren**. Alde hori nabarmenagoa da oinezkoen eta ibilgailu motordunen arteko bizikidetzaren baloratzeko orduan; izan ere, gizonen % 42,9rentzat oso edo nahiko gatazkatsua da, eta emakumeen kasuan, berriz, datu hori % 58,4ra igo da.

Bizikleta sustatzeko balizko jarduketaren publikoak dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko balorazioa egin dute planteatutako bi jarduketari dagokienez. Hala ere, gizonen apur bat hobeto baloratzen dute automobilaren espazioa mugatzea (% 44,3 eta % 40,9, oso edo nahiko ados), eta emakumeek, berriz, apur bat hobeto baloratzen dute trafikoaren bolumena eta abiadura murriztea (% 68,4 eta % 63,1, hurrenez hurren).

Bizikleta gehiago eta hobeto erabiltzeko faktoreen artean, emakumeentzat faktore garrantzitsuenak zirkulatzeko espazio eta bizikleta bide gehiago eta hobeak izatea eta helmugan bizikleta aparkatzeko aparkaleku publikoak izatea dira. Bi faktore horiek dira gizonentzat ere garrantzitsuenak, baina emakumeen garrantziaren balorazioa 6 puntu handiagoa da. Nolanahi ere, emakumeek gizonen baino garrantzi handiagoa ematen diete bizikletaren erabilera bultzatzeko proposatutako faktore guztiei.

Gizonen eta emakumeek berdin baloratzen dituzte **bizikletaren erabilera sustatzeko politikak** (10etik 6,3 puntu). Bizikletaren erabilera sustatzera baliabide publiko gehiago bideratzearen babesa oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean (% 80,4 eta % 78,7, hurrenez hurren); 2014tik zertxobait igo da emakumeena (4,2 puntu) eta zertxobait jaitsi da gizonena (2,4 puntu).

Inbertsio publikoko eremu garrantzitsuenak antzera baloratzen dituzte gizonen eta emakumeek. Gizonen gehiago laguntzen dute azpiegiturretan inbertitzen eta bizikleta konbentzionalak eta elektrikoak erosten eta konpontzen. Emakumeek, berriz, baliabide publikoak aparkaleku seguruetan, ikastetxeetan zirkulatzeko ikasteko prestakuntzan eta bizikleta publikoaren eta partekatuen sistemaren inbertitzearen alde egiten dute.

Bizikletan ibiltzeak duen **onenari** dagokionez, emakumeek gizonen baino proportzio handiagoan adierazten dute bizikletaz ibiltzeak beste garraio bide batzuekin alderatuta dakarren izaera ekonomikoa (aurreztea) eta une horiek familiarekin eta lagunekin partekatzeak aukera. Bestalde, gizonen emakumeek baino proportzio handiagoan aipatzen dute bizikletaren bidez lortzen duten ariketa fisikoa edo ongizate psikologikoa (deskonexioa, lasaitasuna, gozamina).

Aitzitik, bizikletan ibiltzeak duen **okerrenak** bat egiten du gizonen eta emakumeen artean, eta eguraldi txarra, bide publikoaren beste erabiltzaileekiko harremana, arriskugarritasuna eta azpiegiturak nabarmentzen dira

10 Taldeko dinamikak: Atera diren gai nagusiak

Atal honetan, prozesu kualitatibotik (lau talde-dinamika eta bi elkarrizketa sakon) ateratako emaitza nagusiak aurkeztuko ditugu.

10.1 Garraibideen arteko bizikidetza

Eztabaida-talde eta elkarrizketa guztietan gehien aipatu duten gaia izan da, bai erabiltzaileek, bai erabiltzaile ez direnek, eta eztabaidaren prisma antzekoa izan da kasu guztietan: Errespetua, heziketa, segurtasuna... Hala ere, kontzeptu horien ñabardurak desberdinak dira bizikletaren erabiltzaileen eta erabiltzaile ez direnen kasuan.

Bizikidetzaren garrantzia nabarmendu dute, baina erabiltzaileek txirindularien portaerei egiten diete erreferentzia (ez kasu guztietan) eta erabiltzaile ez direnek oinezkoei.

Halaber, esanguratsua da udalerrri txikiagoetan bizi diren pertsonak bizikidetzaz jardutean, Donostiako taldeek baino gehiago aipatzen dutela hiriarteko bizikidetza.

Gainerakoan, ikuspegi orokorra da heziketa eta errespetua sustatzea, hierarkia desberdinak ezarri arren. Hala, hainbat arrazoi direla eta, duten ikuspegia da errepideak (hiriartekoa batez ere, nahiz eta esku-hartzeetan ideiak nahastu) autoari bideratuago egon behar duela segurtasun-arrazoiengatik. Bizikletaren erabiltzaile ez diren pertsonak uste dute hori dela modu logikoa, erabiltzaileen ustez, ordea, bereizketa egungo ereduaren ondorio da eta ezingo da aldatu.

10.2 Bizikidetza patineteekin

Garraibideen arteko bizikidetzari dagokionez, eztabaida sortzen du bereziki patineteen gaiak.

Erabiltzaile ez diren pertsonak antzeko pertzepzioa dute bizikleten eta patineteen gainean, baina uste dute patineteek arrisku handiagoa dutela. Bizikleta-erabiltzaileen artean, ikuspegia negatiboagoa da; izan ere, lehiakide gisa ikusten dute nolabait haientzako espazioaren barruan (bidegorria), eta autoen eragozpen berdinak (abiadura) eta besteren bat (zaratarik ez egitea eta hautemateko zailagoak izatea) ikusten dizkiote. Oro har, badirudi eragile arauhausleago eta arriskutsuago gisa ikusten dela.

10.3 Segurtasuna

Bizikidetzaren eta espazioak partekatzearen (espaloiak, bizikleta bideak eta galtzadak) gaineko gogoeta guztiek segurtasunaren eta baldintza materialen eta immaterialen gaineko eztabaida ere sortzen dute.

Baldintza horiek dira espazio fisikoaren antolaketa fisikoa, bizikleta bideen konexioak, edota kaskoaren eta argien erabilera.

Hala, segurtasuna alderdi pertsonaletan (argiak, arropa egokia) eta ingurumeneko alderdietan (azpiegiturak, seinaleztapena...) oinarritzen da. Ingurumeneko alderdiak dira erabiltzaileek bereziki aipatzen dituztenak, baina alderdi pertsonalak ere asko aipatu dituzte, nahiz eta pentsa litekeen erabiltzaile ez direnek aipatuko zituztela gehien.

10.4 Bizikleten aparkalekua eta lapurreten arazoak

Gehien eztabaidatu den gaietako bat izan da eta, gainera, aurretik aipatutako gaiekin lotura du, esaterako, bizikleten erabilera sustatzeko azpiegiturekin (bizikleta bideak).

Aparkalekuaren arazoa erabiltzaileek zein erabiltzaile ez direnek partekatzen dute, baina ikuspegi desberdinetatik baloratzen dute.

Bizikletaren erabilera sustatzeko eragozpena izan daitekeela uste dute, bai bizikleta etxean gordetzeko zailtasunengatik, bai, bereziki, bizikleta helmugan aparkatzeko dauden zailtasunengatik.

Gainera, aparkatzeko zailtasunek lapurretak sustatu ditzakete praktikan eta hori ere eragozpena izan daiteke.

Azkenik, sentimendu nagusia ez den arren, bizikletak kaleko edozein lekutan uzteak espazio publikoaren antolaketan sortzen duen eragozpena ere aipatu dute.

10.5 Bizikletaren erabiltzaile ez direnek zehazki aipatutako alderdiak

Atal honetan erabiltzaile ez diren pertsonen eztabaida-taldetan atera diren eta beste taldeetan aipatu ez dituzten gaiak aurkeztuko ditugu. Bi dira nagusiki:

- Dbizi garraio publikoa dela eta, hortaz, gainerako garraio publikoari esleitzen zaizkion deskontuak ezarri behar zaizkiola aipatu dute.
- Erabiltzaile ez diren pertsonak naturaltasunez onartzen dute etorkizun hurbilean bizikleten erabilera handitu egingo dela.

10.6 Bizikletaren erabiltzaileek zehazki aipatutako alderdiak

Atal honetan, erabiltzaileen edozein eztabaida-taldetan agertu diren gaiak aurkeztuko ditugu:

- Bizikleta publikoa zerbitzu ona dela eta, erabiltzaile ez direnek aipatzen zuten moduan, prezioa baxuagoa izan behar duela uste dute. Gainera, zerbitzu ona da lapurtzeko arriskurik ez dagoelako eta etxean bizikleta non utzi arazoari aurre egiteko aukera ematen duelako.
- Bizikletak, alokairukoak batez ere, garraio publikoarekin konbinatzeko ematen duen aukera aipatu dute.
- Bizikletaren erabilera handitzeko heziketak duen garrantzia nabarmendu dute eta Zarautz jarri dute arlo horretako politika onaren eredu gisa.
- Bizikletaren aurkako sentimendu jakin bat dagoela aipatu dute. Ez zen askotan adierazitako aipamena izan, baina dinamika baten barruan egindako iruzkin esanguratsua izan zen.

11 Sintesia

1- Bidaien maiztasuna garraio bidearen arabera

- Gipuzkoako 15 urte eta gehiagoko herritarren bidaietarako garraio biderik ohikoena oinez mugitzea da. Biztanleriaren % 86,8 hala mugitzen da egunero.
- Biztanleriaren % 81,0 auto pribatuarekin mugitzen da hilean behin gutxienez. % 39,9k adierazi du hala mugitzen dela egunero edo ia egunero; % 29,0k asteen behin eta hiru egunen artean egiten du; eta % 12,1ek hilean behin gutxienez.
- Biztanleria osoaren % 72,4k adierazi du hilean behin gutxienez garraio publikoan mugitzen dela (autobusa, tren). % 24,7k ia egunero egiten du, % 23,3 asteen behin eta hiru aldiz artean eta beste % 24,4k hilean behin gutxienez.
- % 30,6k adierazi du hilean behin gutxienez bizikletaz mugitzen dela. % 9,9 egunero edo ia egunero mugitzen da hala, % 13,3 asteen behin gutxienez eta % 7,4 hilean behin eta hiru aldiz artean.
- % 9,9 motorrarekin mugitzen da hilean behin gutxienez. % 3,9k ia egunero egiten du, % 4,2k asteen behin gutxienez eta % 1,8k hilean behin eta hiru aldiz artean.
- Gipuzkoako 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 2,4 mugikortasun pertsonaleko ibilgailuarekin mugitzen da hilean behin gutxienez. % 1,0k egunero egiten du, % 1,1ek asteen behin eta hiru aldiz artean eta beste % 0,3k hilean behin gutxienez.
- Emaizten maiztasuna apur bat aldatu da 2014arekin alderatuta, galderak planteatzeko moduaren ondorioz. Hala ere, oraindik alderdi batzuk alderatu daitezke. Oinez ibiltzeko ohitura murriztu egin da 2023tik, eta beste garraio bide batzuk erabiltzeko maiztasuna handitu egin da. Zehazki, bizikleta normalean erabiltzen duten pertsonen ehunekoa igo egin da 2023an 2014arekin alderatuta, baina baita sekula erabiltzen ez dutenen kopurua ere.

2- Garraio bideen segurtasunaren pertzepzioa

- Segurtasun-pertzepziorik txikiena ematen duen garraio bidea mugikortasun pertsonaleko ibilgailua da: % 18,5entzat ez da oso segurua eta % 39,0entzat ez da batere segurua.
- Motorra da segurtasun-pertzepziorik txikiena ematen duen bigarren garraio bidea: % 30,7entzat ez da oso segurua eta % 22,6entzat ez da batere segurua.

- Bizikleta da pertzepzioen arabera hirugarren garraibiderik arriskutsuena: % 29,4rentzat ez da oso segurua eta % 10,1entzat ez da batere segurua.
- % 9,0k uste du auto pribatua ez dela oso segurua (% 8,6) edo batere segurua ez dela (% 0,9).
- Oinez ibiltzea ez da oso segurua biztanleria osoaren % 5,7rentzat eta % 1,3rentzat ez da batere segurua.
- Garraio publikoa (autobusa, tren) da garraibiderik seguruena. % 3,0rentzat ez da oso segurua eta % 0,8rentzat ez da batere segurua.
- Emaitzak 2014koekin alderatuz gero, handitu egin da segurtasun-pertzepzioa garraibide guztietan. Bereziki adierazgarria da autoaren gaineko segurtasun-pertzepzioa: 2014an, oso segurua zen erabiltzaileen % 14,1entzat; 2023an, berriz, kopuru hori % 34,8ra igo da. Gainera, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruzko informazioa gehitu da azterketa honetan, nabarmen handitu baita horien presentzia urteotan.
- Adingabeak kargupean dituzten pertsonak aztertuz (aztertu den biztanleriaren % 33,3), mugikortasun pertsonaleko ibilgailuekin eta motorrarekin egindako bidaiak dira segurtasun gutxien ematen dutenak (% 62,5 eta % 61,7); ondoren, bizikletaren egindakoak, ehuneko txikiagoarekin (% 40,8), baina oinez, autoarekin eta garraio publikoarekin egindako bidaien segurtasun-pertzepziotik oso urruti (% 10aren azpitik).
- Datu horiek biztanleria osoarekin alderatzen baditugu, ondoriozta dezakegu segurtasun gutxi edo batere ez ematearen pertzepzioa handitu egiten dela adingabeak kargupean izanez gero.

3- Garraibidearen eskuragarritasuna

- 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleriaren % 78,3k adierazi du auto pribatua duela bere erabilera pertsonalerako; % 48,5ek bizikleta du; % 12,8k motorra eta % 4,2k mugikortasun pertsonalerako ibilgailua.
- 2014ko azterketan, % 70,5ek zuen auto pribatua, % 54,9k bizikleta eta % 10,9k erabilera pertsonalerako motorra. Erabilera pertsonalerako bizikleta duten norbanakoen ehunekoa murriztu egin da 2014an bildutako datuekin alderatuta.

4- Garraibideen arteko bizikidetza

- Bizikleten eta motordun ibilgailuen arteko bizikidetza da gatazkatsuen 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako herritarrentzat. % 74,1ek uste du bizikidetza oso (% 32,2) edo nahiko (% 41,9) gatazkatsua dela.
- % 58,1ek uste du bizikleten eta oinezkoen arteko bizikidetza oso gatazkatsua (% 13,8) edo nahiko gatazkatsua (% 44,3) dela.
- % 50,9ek uste du oinezkoen eta motordun ibilgailuen arteko bizikidetza oso

gatazkatsua (% 9,8) edo nahiko gatazkatsua (% 41,1) dela.

5- Bizikleten parkea

- Gipuzkoako familien % 72,6k bizikleta bat du gutxienez (haurrenak kenduta). Gipuzkoako familia bakoitzeko bizikleten batezbestekoa 2,02koa da.
- 2014ko familiako bizikleten batezbesteko kopurua 1,04koa zen. Horrek esan nahi du, 2023an igo egin dela bizikleten kopurua.
- Bizikleta duten familia guztietatik % 11,9k bizikleta elektriko bat du gutxienez; hau da, Gipuzkoako familien % 8,7k bizikleta elektrikoa du.
- Bizikleta duten familietatik % 34,3k erabiltzen ez duen bizikleta bat du gutxienez; hau da, Gipuzkoako familien % 31,6an erabiltzen ez den bizikleta bat dago gutxienez.

6- Bizikleta gordetzeko lekua

- Bizikleta duten pertsonen % 75,3k bere erakineko leku pribaturen batean gordetzen du (trastelekuan, garajea...) eta beste % 17,9k etxean bertan (geletan, balkoian, korridorean). % 4,4k eraikineko eremu komun batean gordetzen du (ataria, gela komuna), % 1,3k beste leku batzuetan gordetzen du, hala nola bizikleten aparkalekuan eta beste % 1,1ek kalean uzten du.
- Bizikletak etxe barruan gordetzen dituzten pertsonen kopurua nabarmen igo da, eta % 17,9ra igo da 2023an, 2014ko % 9,1ekin alderatuta. Hala ere, bizikletak gordetzeko aukerarik ohikoena eraikineko eremu pribatu bat da oraindik ere, esaterako, trastelekua edo garajea, baina espazio horien erabilera apur bat murriztu da 2023an 2014arekin alderatuta.

7- Bizikleten lapurretak

- Bizikleta duten familien % 18,7k adierazi du azken urteotan bizikletaren bat lapurtu diotela. Horrek esan nahi du Gipuzkoako familien % 13,6ri bizikletaren bat lapurtu diotela azken urteotan.
- Bizikleten lapurreten ehunekoak 2014an erregistratutako antzeko mailetan mantendu dira.
- Lapurretaren unean, familien % 52,9k adierazi du bizikleta kalean zegoela; % 24,6k garaje batean gordetzen zuen; % 12,1ek bizikletentzako aparkaleku batean; eta % 8,3k beste leku batzuetan. Bizikleta lapurtu dieten familien % 2,1ek soilik adierazi du bizikleta lapurtu zieten unean etxe barruan zegoela.
- Bizikleta lapurtu zieten familien % 68,2k salatu du lapurreta, % 28,2k, aldiz, ez du salaketarik jaso.
- Bizikletaren lapurreta salatu duten familien % 10,4k soilik berreskuratu du.

8- Bizikletan ibiltzen jakitea eta ikasteko prest egotea

- 15 urte edo gehiagoko biztanleriaren % 93,3k adierazi du badakiela bizikletan ibiltzen, % 6,7k, aldiz, ez daki. Gizon gehiagok dakite bizikletan ibiltzen emakumeek baino (% 96,4 eta % 90,3).
- Bizikletan ibiltzen badakitela adierazi duten pertsona guztietatik, % 76,3k dio hiri-eremuan modu seguruan ibiltzeko gai dela eta % 23,7k ez dela gai. Gehiago dira gaitasun hori ez dutela adierazi duten emakumeak gizonak baino (% 25,6 eta % 21,9).
- Bizikletan ibiltzen ez dakitela edo badakitela baina hiri-eremutik modu seguruan mugitzeko gai ez direla esan duten pertsona guztietatik, % 41,8k gaitasun hori eskuratu nahiko luke. Beste % 58,2ri, ordea, ez zaio interesatzen. Bizikletan modu seguruan ibiltzeko gaitasuna lortzeko interesa duten emakumeen proportzioa gizonen bikoitza da (% 53,3 eta % 25,6).
- Hortaz, Gipuzkoan, biztanleriaren % 28,8k ez daki bizikletan ibiltzen edo ez da seguru sentitzen bere inguruan ibiltzeko garaian. Gipuzkoako biztanleriaren % 12,1ek interesa du gaitasun hori eskuratzeko.

9- Bizikletan ibiltzeko maiztasuna

- 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleriaren % 23,2 “ohiko erabiltzailea edo txirrindularia” da, astean behin behintzat bizikletaz mugitzen baita.
- % 9,9k egunero edo ia egunero erabiltzen du.
- % 13,3k astean behin behintzat erabiltzen du bizikleta.
- % 7,4k hilean behin eta hiru aldiz bitartean erabiltzen du.

10-Bizikletan ibiltzea bidaiaren arrazoien arabera

- Bizikleta ohikotasunez erabiltzen dutenak (egunerokoak eta kirol/aisialdikoak) azterketa honen xede-biztanleriaren % 23,2 dira eta bizikleta erabiltzeko gehien errepikatu den arrazoia (% 78,4k aipatu du) aisialdia izan da.
- Bigarrenik, pertsonen % 50,8k adierazi du kirola egiteko asmoarekin erabiltzen duela bizikleta eta, hirugarrenik, gestioak eta kudeaketak egiteko beharragatik egindako bidaiak daude. Pertsonen % 46,3k adierazi du arrazoi hori.
- Ikastetxera edo lanera joateko bizikleta erabiltzea % 36,4k adierazi du.

11-Ohiko txirrindulari motak

- Bidaien arrazoi nagusiaren arabera, ohiko txirrindulariak honela bereizi ditugu:
- “Eguneroko txirrindulariak:” Astean behin gutxienez bizikletaz ibiltzen direla adierazi duten pertsonak dira eta arrazoi hauengatik erabiltzen dute bizikleta: lana, ikasketak, gestioak/erosketak eta/edo adingabeen/adinekoen zaintza.

15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleria guztiaren % 15,3 dira.

- “Kirol/aisialdiko txirrindulariak”: Astean behin gutxienez bizikleta erabiltzen dutenak dira, baina erabiltzeko arrazoia kirolarekin eta/edo aisialdiarekin lotuta dago. Biztanleriaren % 7,9 dira.

12-Eguneroko txirrindulariak

- “Eguneroko txirrindularien” % 83,7k adierazi du beti erabili izan duela bizikleta aipatutako funtzio nagusia betetzeko, aldiz, % 16,3k esan du lehen beste garraio bide bat erabiltzen zuela horretarako.
- Bizikleta erabili aurretik beste garraio bide bat erabiltzen zutela adierazi duten “eguneroko txirrindularien” % 46,2 oinez ibiltzen zen, % 11,0 motorrean, % 24,7 autobusez, % 4,6 trenez eta % 32,5 ibilgailu pribatuan.
- Soilik joaneko bidaia kontuan hartuz, kolektibo horren % 32,2k 3 kilometro egiten ditu gehienez ere (hau da, biztanleria osoaren % 4,9) eta % 41,2k (biztanleriaren % 6,3) 20 minutu baino gehiago ematen ditu. Beste % 39,3k 5 eta 15 minutu artean behar ditu bidaia egiteko (biztanleria osoaren % 6,0).
- 2014arekin alderatuta, denboran dauden aldeak bat datoz ibilbide luzeagoak egiten dituzten pertsonen kopuru handiagoarekin. Horrek azaltzen du distantzia laburretan bizikleta erabiltzen duten pertsonen ehunekoa murriztu den moduan, 2023an ere nabarmen murriztu dela 5 eta 10 minutu arteko bidaietarako erabiltzen duten pertsonen ehunekoa. Kontrara, igo egin da 20 minututik gorako bidaietarako bizikleta erabiltzen duten norbanakoen kopurua, eta % 41,2ra iritsi da 2023an, 2014ko % 12rekin alderatuta.
- Kolektibo horrek lanagatik, ikasketengatik, gestio/erosketengatik eta/edo adingabeen/adinekoen zaintzagatik egindako bidaietan kaskoa erabiltzeari dagokionez, pertsonen erdiak erabiltzen du (% 47,3) eta beste erdiak ez (% 52,7). Emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dute (% 54,4 eta % 41,7).
- 2014an, bidaietarako kaskoa erabiltzen zuten eguneroko txirrindularien ehunekoa 2023ko ehunekoaren erdia baino gutxiago zen: 2014an % 20 eta 2023an % 47,3.
- “Eguneroko txirrindulariak” kolektiboko pertsonak gehien erabiltzen duten bizikleta hirikoa/paseokoa/hibridoa da (% 46,4k erabiltzen du, hots, biztanleria osoaren % 7,1ek); aldiz, % 39,5ek BTT/Mountain Bike/Gravel bizikleta erabiltzen du (Gipuzkoako 14 urtetik gorako biztanleriaren % 6,0).
- “Eguneroko txirrindulariek” erabiltzen dituzten bizikleten % 14,7 elektrikoak dira.
- Kolektiboaren % 56,6k adierazi du eguraldi txarra eginez gero inoiz ez duela bizikleta erabiltzen (biztanleria osoaren % 8,7) eta % 14,5ek dezentetan uzten dio erabiltzeari. Kolektibo horretako pertsonen % 18,1ek adierazi du beti erabiltzen duela garraio bide hori, eguraldia edozein izanik ere (15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleria osoaren % 2,8 da).

- 2014an, bizikleta garraibide gisa erabiltzen zuten pertsonen % 12k adierazi zuen eguraldi txarra eginez gero oso gutxitan uzten ziola bizikleta erabiltzeari. Aldiz, ohiko erabiltzaileen taldeko % 28k erabiltzen jarraitzen zuen, eguraldi txarra egin arren. Hala ere, ehuneko hori % 18,1era murriztu da 2023an. Kontrara, 2014an, % 40k berretsi zuen eguraldi txarra eginez gero automatikoki uzten ziola bizikleta erabiltzeari. Ehuneko hori % 56,6ra igo da 2023an.
- Eguraldi txarrarekin bizikleta erabiltzen ez dutenek hiru faktore hauek aipatu dituzte gehien eguraldi txarrarekin bizikletan ibili ahal izateko: % 41,6 ez dago prest eguraldi txarrarekin bizikletan ibiltzeko; % 27,0k eguraldi txarrerako arropa/jantzi espezifikokoak behar ditu eta % 10,2k baldintza meteorologiko horietarako bizikleta bide seguruagoak behar ditu (ez irristatzea, putzuak...).
- 2014arekin alderatuta, nabarmen igo da eguraldi txarrarekin bizikleta erabiltzeko prest ez dauden pertsonen kopurua. Bestalde, 2014an garrantzi handiagoa eman zitzaion helmugan arropaz aldatzeko leku egokia izateari.
- “Eguneroko txirrindularien” kolektiboarentzat beste garraibide batzuen aurrean bizikleta erabiltzeko garrantzitsuenak diren arrazoiak hauek dira: bizikletan mugitzearen erosotasuna (% 95,6rentzat oso edo nahiko garrantzitsua da), jokabide osasungarria izatea (% 93,6) eta bizikletan ibiltzean gehiago gozatzea (% 93,2k garrantzi handia edo dezentea ematen dio).
- “Eguneroko txirrindularien” % 69,4k ez du sekula eraman bizikleta garraio publikoan; % 20,1ek tarteka egiten du; % 6,1ek nahiko maiz eta % 4,4k normalean.
- “Eguneroko txirrindularien” % 85,0k adierazi du ez duela inoiz uzten bizikleta autobus- edo tren-geltokian gero garraibide horiek hartzeko; % 8,0k normalean edo maiz egiten du hori eta beste % 7,0k noizbehinka.

13-Bizikleta garraibide gisa ez erabiltzeko arrazoiak

- “Noizbehinkako txirrindulariak” (astean behin baino gutxiagotan ibiltzen dira) biztanleria osoaren % 14,6 dira, eta “kirol/aisialdiko txirrindulariak” % 7,9 (bizikleta erabiltzen dute normalean, baina kirolerako-aisialdirako). Bi kolektiboek batera 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleriaren % 22,5 ordezkatzeko dute.
- Bi kolektibo horien guztizkoaren % 39,0k adierazi du iraganean garraibide gisa erabili izan duela bizikleta nahiko maiz (astean behin gutxienez), lanagatik, ikasketengatik, gestio/erosketengatik eta/edo adingabeen/nagusien zaintzagatik.
- Bi kolektiboek galdetzean ea zer arrazoi den garrantzitsua bizikleta eguneroko garraibide gisa ez erabiltzeko garaian, gehienek eguraldia aipatu dute arrazoi nagusi gisa (% 66,3entzat oso edo nahiko garrantzitsua da faktore hori). Bigarrenik, garrantzi handia esleitzen diote trafikoaren arriskuari eta istripuak izateko arriskuari (% 50,1); eta hirugarren faktorerik

garrantzitsuena txirindularientzako erraztasun falta da (bizikleta bideak, aparkalekuak, lekua etxean...) (% 46,0). Azpimarratzekoa da galdetutako kolektiboaren % 48,0k uste duela bizikleta ez dela haientzat garraibide egokia.

14-Bizikleta eguneroko garraibide gisa erabiltzeko interes-maila

- “Eguneroko txirindulariak” direla adierazi duten Gipuzkoako 14 urtetik gorako herritarren % 15,3 kenduta, Gipuzkoako biztanleriaren % 84,7 “egunerokoak ez diren txirindularien” kolektiboaren barruan dago; bizikletan ibiltzen ez dakiten pertsonak (% 6,7), “noizbehinkako txirindulariak” (% 14,6), “kiroleko-aisialdiko txirindulariak” (% 7,9), eta bizikletan ibiltzen jakin arren inoiz desplazatzen ez diren pertsonak (% 55,5).
- “Egunerokoak ez diren txirindularien” artean, % 15,1ek adierazi du bizikleta eguneroko garraibide gisa erabiltzeko interes handia edo dezentea duela, hau da, biztanleria osoaren % 12,8k du interes hori.

15-Bizikleta erabiliz gero, gutxiago erabiliko litzatekeen garraibidea

- Eguneroko garraibide gisa bizikleta erabiltzeko interesa duen biztanleriaren % 46,9k nabarmendu du bere bidaletan bizikleta erabiliz gero, gutxiago erabiliko lukeela auto pribatua (biztanleria osoaren % 6,0). % 4,6k gutxiago erabiliko luke motorra eta % 17,6k garraio publikoa (autobusa, tren).

16-Bizikleta erabiltzen ikasteko edo trebatzeko ikastaro bat egiteko interesa

- Egunerokoan bizikleta erabiltzeko interes jakin bat (handia, dezentea edo txikia) duten pertsona guztietatik (egunerokoak ez diren txirindularien % 29,6 edota biztanleria osoaren % 25), % 19,2k interes handia (% 5,9) edo nahikoa du (% 13,3) bizikleta garraibide gisa erabiltzeko beharrezko gaitasunak lortzeko ikastaro bat egiteko. Horrek esan nahi du biztanleria osoaren % 4,8 oso (% 1,5) edo nahiko (% 3,3) interesatua egongo litzatekeela halako ikastaroak egiteko.

17-Bizikleta garraibide gisa erabiltzen duten pertsonen irudia

- 15 urte edo gehiagoko Gipuzkoako biztanleria osoaren % 89,4k uste du bizikleta garraibide gisa erabiltzea oso ondo (% 40,1) edo nahiko ondo ikusia (% 49,3) dagoela sozialki.
- 2014an, bizikleta erabiltzea sozialki ondo ikusita dagoela uste zuten pertsonen ehunekoa 2023koaren antzekoa zen, % 87 zehazki.
- Bizikleta garraibide gisa erabiltzea irudi hobearekin lotuta dagoela uste dutenen proportzioa zabalagoa da “eguneroko txirindularietan” artean, baina “kiroleko-aisialdiko txirindulariak” eta “noizbehinkako txirindulariak” taldeekin

alde txikia dago.

18-Garraibideen arteko bizikidetza

- Oinezkoen eta motordun ibilgailuen arteko bizikidetza oso gatazkatsua da biztanleriaren % 9,8rentzat eta nahiko gatazkatsua % 41,1entzat.
- Txirindularien eta oinezkoen arteko bizikidetza oso gatazkatsua da biztanleriaren % 13,8rentzat eta nahiko gatazkatsua % 44,3rentzat.
- 14 urtetik gorako Gipuzkoako biztanleriaren % 32,2k uste du txirindularien eta motordun ibilgailuen arteko bizikidetza oso gatazkatsua dela eta % 41,9rentzat nahiko gatazkatsua.
